**SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOA**
**FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA (FCSM)**

# 2018ko ABENDUAREN 31n BUKATUTAKO EKITALDIKO MEMORIA

## 1. ERAKUNDEAREN JARDUERA

### 1.1. ERAKETA

Santa Maria Katedrala Fundazioa 1999ko maiatzaren 25ean eratu zen eta 2000. urteko maiatzean hasi zen jarduten.

Helbide honetan dago sozietatearen egoitza: Aiztogile kalea 93, Gasteiz.

### 1.2. LEGEZKO ARAUBIDEA

Ekainaren 2ko 9/2016 Legeari, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzkoari, ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuari, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren erregelamendua onartzen duenari, eta ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuari, EAEko Fundazioen Erregistroaren araudia onartzen duenari, men egiten die.

### 1.3. JARDUERAK

Santa Maria Katedrala Fundazioak honako xede orokor hau dauka: "Gasteizko Santa Maria Katedrala eta haren hiri ingurunea sendotu, zaharberritu eta birgaitzeko bidea ematea, horretarako ezarritako Gida Planeko jarraibideak garatuz".

Bestalde, katedralaren eta ingurunearen kudeaketa ez-erlijiosoa bere gain hartuko du, indarrean dagoen bitartean.

Sozietatearen estatutuen 4. artikuluak fundazioaren jarduera hauek aipatzen ditu:

- Gida Plana onartu eta garatzea.
- Programak, egutegiak eta esku hartzeak onartzea.
- Esku hartzeak gauzatzeko proiektuak kontratatzea.
- Esku hartzeetarako eta horien jarraipen eta kontrolerako behar diren obrak eta lanak kontratatzea eta finantzatzea.
- Helburu duen jarduera garatzeko tresna materialak sortzen laguntzea eta eratutako tresna materialak kudeatzea.
- Jarduerak, enkarguak eta mandatuak egitea eta Arabako Lurralde Historikoko kultura ondarearen arloan patronatuak onartzen dituen programak garatu eta kudeatzea, zuzenean edo zeharka, bai eta kultura ondarearekin zerikusia duten ikerketa eta prestakuntza jarduerak ere, horretarako jartzen diren aurrekontuen kontura.
- Adjudikatzeko ahalmenari dagokionez, kudeaketa enkargu edo mandatuak sektore publikoko ente, organismo eta erakundeei, fundazioaren baliabide berekitzat eta zerbitzu teknikotzat jo daitezkeenei, egingo zaizkie, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenak, 4.1.n eta 24.6 artikuluetan edo hori ordezten duen arauetan araututako baldintzetan.

- Fundazioaren xedea betetze aldera, patronatuak egokitzat jotzen dituen gainerako ekintzak gauzatzea eta, bereziki, fundazioaren xedea eta helburuak zabaltzeko ekintza guztiak.

Fundazioaren egungo jarduera sozietatearen xedearekin bat dator.

FCSMk ez du beste inongo erakundetan parte hartzen, eta ez dauka loturarik talde-harremana edo elkartea era dezakeen inolako erakunderekin, Merkataritza Kodearen 42. artikuluak ezarritako baldintzei jarraiki eta irabazi asmorik ez duten erakundeen Kontabilitate Plana onartzen duen ICAC (Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzaren Institutua) erakundearen 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenaren hirugarren ataleko hamaikagarren eta hamahirugarren arauei jarraiki.

Fundazioak erabiltzen duen diru funtzionala euroa da.

## URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

### 2.1. IRUDI ZINTZOA

Txosten honi erantsitako 2018ko ekitaldiko urteko kontuak erakundearen 2018ko abenduaren 31ko kontabilitate erregistroetan oinarrituta formulatu ditu patronatuak. Horietan, xedapen hauetan bildutako kontabilitate printzipioak eta balioespen irizpideak aplikatu dira: urriaren 24ko 1491/2017 Errege Dekretua, Kontabilitate Plana irabazteko asmorik gabeko erakundeetara egokitzeko arauak eta irabazteko asmorik gabeko erakundeen jarduketa planaren eredua onartzen dituena (IAGE KP), eta ICACen 2013ko martxoaren 26ko ebazpenak, irabazteko xederik gabeko erakundeen Kontabilitate Plana eta irabazteko xederik gabeko erakunde txiki eta ertainen Kontabilitate Plana onartzen dituztenak. Aipatutako arauek berariaz aldatzen ez duten guztirako, 1514/2007 Errege Dekretua, Kontabilitate Plan Nagusia onartzen duena, eta kontabilitatearen arloan indarrean dauden gainerako legezko xedapenak aplikatuko dira. Gainera, 8/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako finantza egoeren ereduak hartuko dira aintzat. Urteko kontuek FCSMren ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen irudi zintzoa erakusten dute.

Ez dago salbuespeneko arrazoirik irudi zintzoa erakuste aldera kontabilitate arloko legezko xedapenak ez aplikatzeko.

Santa Maria Katedrala Fundazioaren Patronatuak onartu beharko ditu honekin batera doazen urteko kontuak, eta aldaketarik gabe onartuko dituela uste da.

Aurreko ekitaldiko urteko kontuak 2018ko uztailaren 24ko saioan onartu zituen Patronatuaren Batzordeak.

### 2.2. ZIURGABETASUNAREN BALIOESPENAREN ETA ZENBATESPENAREN ALDERDI KRITIKOAK

**Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa betez prestatu ditu fundazioak bere finantza egoerak; izan ere, ez da egon hurrengo ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsuak eragin ditzakeen arrisku garrantzitsurik.**

**Fundazioa, bere xedea betetzeko asmoz, ekarpen publikoez hornitzen da funtsean, bai bazkide sortzaileek bai beste erakunde publiko batzuek emandakoez.**

Fundazioaren jardueraren garapena lortzen diren dirulaguntzen arabera egokitzen da. Ekitaldi bakoitzean, patronatuak dirulaguntzen ziozko diru sarrera konprometituen arabera onartzen ditu obrak eta jarduerak.

Txostenari erantsitako urteko kontuetan, batzuetan, fundazioaren zuzendaritzak egindako zenbatespenak erabili izan dira, hor erregistratuta dauden aktibo, pasibo, diru sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk kuantifikatzeko. Funtsean, hauek dira zenbatespenak:

- Aktibo materialen eta ukiezinen bizitza baliagarria (4.1, 4.2, 5. eta 6. oharrak).
- Izakinen balioaren zuzenketa (4.4 eta 8. oharrak).
- Jasotako ekarpenen eta dirulaguntzen aplikazioa (4.11 eta 10. oharra).

Baliteke, nahiz eta zenbatespen horiek urteko kontu hauek egiteko unean aztertutako egitateen gainean zegoen informaziorik onena oinarri hartuta egin ziren, etorkizunean hurrengo ekitaldi batzuetan (gorantz edo beherantz) aldatzera behartzen duten gertakariak jazotzea. Hori etorkizunean egingo litzateke, zenbatespen aldaketaren ondorioak aitortuz etorkizuneko galera-irabazien kontuetan.

## 2.3. INFORMAZIOA ALDERATZEA

Urteko kontuek, balantzeko eta emaitzen kontuko partida bakoitzari dagokionez, 2018ko ekitaldiko kopuruak ez ezik, aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dituzte, alderatu ahal izateko. Era berean, memoria honetan 2018ko ekitaldiari buruz ageri den informazioa 2017ko ekitaldiko informazioarekin batera aurkezten da, alderaketak egin ahal izateko.

Fundazioa, sozietatearen estatutuak eta herri administrazioetatik jasotako dirulaguntzak direla eta, urteko kontuen ikuskaritza egitera behartuta dago.

2018ko eta 2017ko ekitaldiak ikuskatuta daude.

## 2.4. PARTIDEN TALDEKATZEA

**Urteko kontuetan ez dago balantzean edo emaitzen kontuan taldekatutako partidarik.**

## 2.5. ZENBAIT PARTIDATAN JASOTAKO ELEMENTUAK

Ez da aurkezten balantzeko partida bitan edo gehiagotan erregistratutako ondare elementurik.

## *2.6. ALDAKETAK KONTABILITATEKO IRIZPIDEETAN*

2018ko ekitaldian, ez da garrantzizko aldaketarik egin kontabilitate irizpideetan, aurreko ekitaldiko irizpideekin erkatuta.

## 2.7. AKATSEN ZUZENKETA

2018ko ekitaldiko urteko kontuek ez dute jasotzen ekitaldian antzemandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

## 2.8. GARRANTZI ERLATIBOA

Finantza egoeretako edo beste gai batzuetako partidei buruzko memoria honetan xehakatu beharreko informazioa zehaztean, fundazioak 2018ko ekitaldiko urteko kontuei lotutako garrantzi erlatiboa hartu du kontuan, Kontabilitate Plan Orokorraren kontzeptu esparruaren arabera.

## 3. EKITALDIKO SOBERAKINAREN APLIKAZIOA

Hona hemen patronatuak ekitaldiko gerakina aplikatzeko egin duen proposamena:

| Banaketa oinarria | 2018 | 2017 |
|---|---|---|
| Ekitaldiko gerakina | 0,00 | 0,00 |
| **Guztira** | **0,00** | **0,00** |

## 4. ERREGISTRATZEKO ETA BALIOESTEKO ARAUAK

### 4.1. IBILGETU UKIEZINA

Ibilgetu ukiezina, hasieran, kostuaren arabera balioesten da; hau da, eskurapen prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera.

Hasierako azterketaren ostean, ibilgetu ukiezina balioestean, kostua ken haren amortizazio metatua hartzen dira kontuan; baita, hala badagokio, erregistratu diren narriatzearen ziozko zuzenketen zenbateko metatua ere.

Aktibo ukiezinak bizitza erabilgarri definituko aktiboak dira eta, horrenbestez, sistematikoki amortizatzen dira aurreikusitako bizitza erabilgarriaren eta hondar balioaren arabera. Amortizatzeko aplikatu diren metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitza ixtean berrikusten dira eta, behar izanez gero, modu prospektiboan doitzen dira. Ekitaldiaren amaieran, behintzat, narriadura zantzurik badagoen ebaluatzen da. Egonez gero, berreskura daitezkeen muntak zenbatesten dira eta bidezkoak diren balioespen zuzenketak egiten dira, epigrafe honen c) atalean ezartzen den moduan.

Aktibo horien bizitza baliagarria modu fidagarrian zenbatetsi ezin denean, hamar urteko epean amortizatuko dira, ibilgetu ukiezinari buruzko arau zehatzetan ezarritako epeei kalterik egin gabe.

Jabetza industriala

Jabetza industriala jabetza edo horren agerraldiak erabiltze aldera edo horien erabilera emateko eskubidea lortzeko asmoz egindako kostuen arabera balioesten da, baldin eta enpresa eskuratzaileak inbentarioan sartu behar baditu, kontratuaren ondoriozko baldintza ekonomikoengatik.

Fundazioaren izen komertziala, marrazki industriala eta marka hartzen dute barne. Jabetza industrialeko eskubideak eskurapen prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioesten dira, kasuan kasuko patentea edo antzekoa lortzen den unean aktibatutako garapen gastuen kontabilitate balioa barne, baita jabetza industriala erregistratu eta formalizatzeko kostua ere.

Amortizazioa eta balioespen zuzenketa egiten zaizkie narriaduragatik.

Erakundearen jabetza industrialaren bizitza baliagarria 10 urte dira, marrazki industrialarena izan ezik (5 urte).

Informatika aplikazioak

Eskurapen prezioan edo ekoizpen prezioan balioesten dira; epigrafe horretan web orriak eta ibilbide birtualaren bideoa garatzeko gastuak hartzen dira barne (zenbait urtez erabiltzea aurreikusten bada). Elementu horien bizitza baliagarria 2 urtekoa dela zenbatesten da, polikromia *software*arena izan ezik, 4 urtekoa dela zenbatesten da eta.

Aplikazio informatikoak garatzen lan egin duten langileen gastuak horien kostu nagusi gisa hartzen dira barne, emaitzen kontuko “Erakundeak bere aktiborako egindako lanak” epigrafetik ordaintzeko.

Bizitza baliagarria luzatzea ez dakarten konponketak eta mantentze gastuak emaitzen kontuan kargatzen dira zuzenean, sortu diren ekitaldian.

Ibilgetu ukiezinaren balio narriadura

Ekitaldiaren amaieran edo balio galerako zantzuak dauden bakoitzean, erakundeak bere aktibo ukiezinen kontabilitate zenbatekoak berrikusten ditu aktibo horiek balio narriaduragatiko galera izan dutelako zantzurik badagoen zehazteko. Zantzuren bat egonez gero, aktiboaren zenbateko berreskuragarria kalkulatzen da balio narriaduragatiko galeraren irismena zehazteko (egonez gero).

Arrazoizko balioaren (salmenta kostua kenduta) eta erabilerako balioaren arteko balio handiena da zenbateko berreskuragarria.

2018ko ekitaldian, erakundeak ez du ibilgetu ukiezinaren narriaduragatiko galerarik izan.

## 4.2. IBILGETU MATERIALA

Eskurapen prezioan edo ekoizpen kostuan balioesten da. Horren barruan, prezioko edozein deskontu edo beherapen kendu ostean fakturatutako zenbatekoaz gain, abian jarri arte egiten diren eta zuzeneko zerikusia duten gastu gehigarri guztiak daude, hala nola lur berdinketako eta eraispeneko, garraioko, aseguruetako, instalazioko, muntaketako eta antzeko gastuak. Sozietateak eskuratze, eraikitze edo ekoizteari zuzenean egotzi ahal zaien finantzazio berezi edo orokorrarekin zerikusia duten finantza gastuak sartzen ditu erabili, ustiatu edo saltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar duen ibilgetu materialaren kostuan. Desegin edo kentzearen ondorioz gain hartutako betebeharren eta aktiboari lotutako beste batzuen (hala nola birgaitze kostuak) egungo balioaren hasierako zenbatespenak ere osatzen du ibilgetu materialaren balioa, betebehar horiek hornidura erregistroa eragiten dutenean.

Zeharkako zergak ogasun publikotik zuzenean berreskuratu ezin direnean soilik gehitzen zaizkio eskurapen prezioari edo ekoizpen kostuari.

Fundazioak ez du bere aktiboko ondasunak desegin, kendu edo birgaitzeko konpromisorik. Horregatik, aktiboetan ez da zenbatetsi etorkizuneko betebehar horiek estaltzeko baliorik.

Fundazioaren patronatuaren ustez, aktiboen kontabilitate balioa ez da beti horien balio berreskuragarria baino handiagoa.

Kontabilitate balio garbia zenbateko berreskuragarria baino handiagoa bada, ibilgetu materialaren elementu baten balioaren narriaduragatiko galera erregistratzen da. Arrazoizko balioaren (salmenta kostua kenduta) eta erabilerako balioaren arteko balio handiena da zenbateko berreskuragarria.

Dagozkion gastu kontuetan kargatuko dira fundazioak egindako obrak eta lanak direla-eta ekitaldian zehar gastatutakoak. Ekoizteko gaitasuna areagotzea edo ondasunen bizitza baliagarria luzatzea dakarten zabalkuntza eta hobekuntza kostuak aktiboan sartzen dira horren baliorik handien gisa. Aribideko ibilgetu materialaren kontuak gastu horien zenbatekoan kargatzen dira, sozietateak berarentzat egindako lanak jasotzen dituen diru sarreren partidatik ordaintzeko.

Ibilgetu materialaren elementuen amortizazioa abian jartzeko eskuragarri daudenetik egiten da, hain zuzen, modu linealean balioetsitako bizitza baliagarrian zehar. Hala, hondar balioa hutsa izango dela zenbatesten da, bizitza baliagarriko urte hauen arabera:

A) *Eraikuntzak:*

Lursailen balioa eta eraikinena bereizita zenbatu dira, haien katastroko balioaren arabera.
Eraikinak ez dira abian jarri arte amortizatuko.
Eskurapen prezioan, notario eta erregistro gastuak kontuan hartu dira, eskurapen balio handiagoa dakartelako.

B) *Lagatako ondasunetan egindako inbertsioak – Zaharberrikuntza eta birgaitze obrak*: kostaprezioan kontabilizatu dira.
2018. eta 2017. urteetako “Zaharberrikuntza eta birgaitze obrak” kontuek katedralean egindako zaharberrikuntza jarduketak hartzen dituzte barne.
Kontabilitate Plan Orokorraren kontzeptu esparruaren arabera, balioespen arau hau ezartzen da: erabileran lagatako ondasunetan egindako inbertsioak aktibo definizioa betetzen dutenean kontabilizatzen dira ibilgetu material gisa. Inbertsio horien amortizazioa haien bizitza baliagarriaren arabera egingo da; hori lagapenaren iraupena izango da, aktiboaren bizitza ekonomikoa baino laburragoa denean.
Amortizazioa 2010. urtean Gasteizko Apezpikutzarekin sinatutako erabilera lagapenaren hitzarmenean aurreikusitako eguna kontuan hartuta egin da; katedralean 30 urteko erabilera lagapena ezartzen du.
Bisitarien Harrera Zentroari dagokionez, amortizazioa katedralaren erabileraren lagapena aurreikusitako datan egin da.

C) *Makinak:*

Monitorizazio sistema ere kontuan hartzen du.
Eskuratutako ondasunak eskurapen prezioan balioesten dira.
10 urtetan amortizatzen dira, bizitza baliagarri zenbatetsiaren arabera, eta abian jartzen direnetik amortizatzen dira.

D) *Beste instalazio eta tresna batzuk:*

Eskuratutako ondasunak eskurapen prezioan balioesten dira.
7 urtetan amortizatzen dira, bizitza baliagarri zenbatetsiaren arabera, eta abian jartzen direnetik amortizatzen dira.

E) *Altzariak:*

Eskuratutako ondasunak eskurapen prezioan balioesten dira.
7 urtetan amortizatzen dira, bizitza baliagarri zenbatetsiaren arabera, eta abian jartzen direnetik amortizatzen dira.

F) *Ekipo informatikoak:*

Eskurapen prezioan kontabilizatu dira.
4 urtetan amortizatzen dira, bizitza baliagarri zenbatetsiaren arabera, eta abian jartzen direnetik amortizatzen dira.

***Bestelako ibilgetu materiala:***

Eskurapen prezioan kontabilizatu dira. 7 urtetan amortizatzen dira, bizitza baliagarri zenbatetsia kontuan hartuta.

Gida Planaren azalpen materiala (maketak) 10 urtetan amortizatzen da, bizitza baliagarri zenbatetsia kontuan hartuta.

***IBILGETU MATERIALAREN AMORTIZAZIO TAULA***

| DESKRIBAPENA | URTEKO EHUNEKOA |
|---|---|
| Jabetza industriala | % 10-% 20 |
| Informatika aplikazioak | % 50 - % 25 (polikromiak) |
| 2000. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 10 |
| 2001. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 11,11 eta % 14,28 (Bisitarien Harrera Zentroa) |
| 2002. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 12,50 eta % 16,66 (Bisitarien Harrera Zentroa) |
| 2003. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 14,28 eta % 20,00 (Bisitarien Harrera Zentroa) |
| 2004. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 16,67 eta % 25,00 (Bisitarien Harrera Zentroa) |
| 2005. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 20,00 eta % 33,33 (Bisitarien Harrera Zentroa) |
| 2006. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 25 eta % 50 (Bisitarien Harrera Zentroa) |
| 2007. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 16,67 |
| 2008. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 20 |
| 2009. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 25 |
| 2010. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 3,33 eta % 33,33 (Bisitarien Harrera Zentroa) |
| 2011. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 3,45 eta % 50,00 (Bisitarien Harrera Zentroa) |
| 2012. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 3,57 |
| 2013. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 3,70 |
| 2014. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 3,85 |
| 2015. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 4,00 |
| 2016. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 4,17 |
| 2017. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 4,35 |
| 2018. urtean lagatako ondasunetan eginiko inbertsioa | % 4,55 |
| Bidezko merkataritzako denda | % 11,76 |
| Informatika ekipoak | % 25 |
| Altzariak | % 15 |
| Beste instalazio eta tresna batzuk | % 15 |
| Makinak | 10% |
| Bestelako ibilgetu materiala | % 15 eta % 10 (maketak) |

## 4.3. FINANTZA TRESNAK

Fundazioak enpresa batean finantza aktibo bat eta, aldi berean, beste enpresa batean finantza pasibo bat edo ondare tresna bat sorrarazten dituzten kontratuak ditu erregistratuta finantza tresnen kapituluan. Beraz, honako hauek dira finantza tresnak:

a) Finantza aktiboak:
- Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk (kutxako eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak).
- Merkataritza eragiketengatiko kredituak: askotariko bezeroak eta zordunak.
- Finantza aktiboak: Eratutako fidantzak eta gordailuak.

b) Finantza pasiboak:
- Merkataritza eragiketengatiko zordunketak: askotariko hornitzaileak eta hartzekodunak.
- Beste finantza pasibo batzuk: Jasotako fidantzak eta gordailuak.

### *4.3.1. Finantza aktiboak*

Finantza aktiboak epemugen arabera sailkatzen dira, hau da, hamabi hilabetetan edo arinago amaitzen direnak arruntak dira, eta epemuga luzeagoa dutenak, aldiz, ez arruntak.

Hasiera batean, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren eta zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio kostuen arteko baturan erregistratzen dira finantza aktiboak.

**Ondoko balioztapena*

Ekitaldia amaitzean, behintzat, fundazioak narriadurari buruzko testa egiten du arrazoizko balioan erregistratuta ez dauden finantza aktiboetarako. Narriadurako froga objektiboak daudela ondorioztatzen da baldin eta finantza aktiboaren balio berreskuragarria kontabilitate balioa baino baxuagoa bada. Halakorik gertatzen bada, narriadura horren erregistroa galera eta irabazien kontuan erregistratuko da

### *4.3.2. Finantza pasiboak*

**Fundazioak ordaintzeke dituen eta fundazioaren trafiko eragiketen ondoriozko ondasun eta zerbitzuen erosketan sortu diren zordunketa eta partidei edo jatorri komertzialik izan ez arren finantza tresna eratorritzat jo ezin direnei deitzen zaie finantza pasibo.**

Ordaindu beharreko zordunketak eta partidak jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioan balioesten dira hasieran, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzioaren kostuen arabera doituta. Gero, pasibo horiek beren kostu amortizatuaren arabera balioesten dira.

Finantza pasiboak epemugen arabera sailkatzen dira; hau da, hamabi hilabetetan edo arinago amaitzen direnak pasibo arruntak dira, eta epemuga luzeagoa dutenak, aldiz, ez arruntak.

Fundazioak baja ematen die finantza pasiboei sortu dituen betebeharrak agortzen direnean.

## 4.4. IZAKINAK

Eskurapen prezioan balioesten dira. Hauxe da eskurapen prezioa: hornitzaileak fakturatutako zenbatekoa, zordunketen nominalari gehitutako interesak eta deskontuak kenduta eta izakinak salmentarako kokatuta egoteko gastu gehigarriak gehituta: garraioak, arantzelak, aseguruak eta eskurapenari egotzi ahal zaizkion beste gastu batzuk:
**FIFO metodoa erabiltzen du enpresak, kudeaketarako egokiena dela uste duelako.**

Izakinak kargatzen dituzten zeharkako zergak ogasun publikotik zuzenean berreskuratu ezin direnean soilik gehitzen zaizkio eskurapen prezioari.

- Etorkizuneko izakin horniduren konturako hornitzaileentzako aurrerakinak beren kostuan balioesten dira.
- Produktu zaharkituen, akastunen edo mugimendu motelekoen balioespena haien balizko bihurtze baliora mugatzen da.
- Izakinen balio garbi bihurgarria eskuratze prezioa edo ekoizpen kostea baino txikiagoa bada, baloraziozko beharrezko zuzenketak egiten dira eta gastu gisa jasotzen dira galeren eta irabazien kontuan.

Produktu zaharkituen, akastunen edo mugimendu motelekoen balioespena haien balizko bihurtze baliora mugatzen da.

## 4.5. MOZKINEN GAINEKO ZERGA

Fundazioa uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen araubideari buruzkoak, irabazteko asmorik gabeko erakundeetarako xedatzen duen zerga araubide berezian dago.

Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernuaren Kontseiluaren 2018ko uztailaren 10eko 34/2018 Foru Dekretuak ezarritakoari jarraiki, lehentasunezko mezenasgo jardueratzat hartzen dira Santa Maria Katedrala Fundazioak 2018ko ekitaldian gauzatutakoak.

Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluaren 2017ko apirilaren 11ko 22/2017 Foru Dekretuaren arabera, lehentasunezko mezenasgo jardueratzat hartzen dira Santa Maria Katedrala Fundazioak 2017. urtean gauzatutakoak.

## 4.6. DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

- Sarrerak eta gastuak sortzapen irizpidearen arabera egozten dira, hortik eratortzen den moneta edo finantza korrontea jazotzen den unea aintzat hartu gabe.Hala ere, ekitaldia itxiko den datan egindako mozkinak bakarrik zenbatuko ditu fundazioak, eta aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, behin-behinekoak barne, ezagutu bezain laster kontabilizatuko dira.
- Ondasunak saltzeagatiko sarrerak haiengatik jasotako edo jaso beharreko kontrapartidaren arrazoizko balioaren arabera aitortzen dira. Goiz ordaintzeagatik, bolumenagatik edo bestelako arrazoiengatik egindako deskontuak eta kredituen nominalera erantsitako interesak horien gutxitze gisa erregistratzen dira. Hala ere, urtebeteko edo gutxiagoko epemuga daukaten eta kontratu interesik ez duten merkataritzako kredituetarako erantsitako interesak barne hartzen ditu fundazioak, eskudiru fluxuak ez eguneratzearen ondorioa nabarmena ez denean.

- Bezeroei egindako deskontuak horiek emateko baldintzak betetzea gertagarria den unean aitortzen dira, salmenten ziozko sarreren murrizketa gisa.

### 4.7. HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK

Egoera balantzea egiten den egunean dauden eta aurreko inguruabarren ondorioz sortu diren betebeharrak, inguruabarrok erakundeari ondare kalteak ekarri ahal badizkiote eta horien zenbatekoa eta kitatzeko unea mugagabeak badira, hornidura moduan erregistratzen dira egoera balantzean, zenbatespenen arabera fundazioak betebeharra kitatzeko ordaindu beharko duen zenbatekoaren egungo balioarekin.

Betebeharra likidatzean hirugarren batengandik jaso beharreko konpentsazioak ez dakar zorraren zenbatekoa gutxitzea, fundazioaren aktiboan kobratzeko dagokion eskubidea aitortzeari kalterik egin gabe, baldin eta itzulketa hori zalantzarik gabe eskuratuko bada. Aktibo hori ezin da kontabilitatean erregistratutako betebeharraren zenbatekoa baino zenbateko handiagoan erregistratu.

### 4.8. INGURUMEN IZAERAKO ONDARE ELEMENTUAK

Hala dagokionean, jardueraren garapenean ingurumen eragina gutxitzea, edota ingurumena hobetzea eta babestea helburutzat daukaten sistema, ekipo eta instalazioetan eragindako kostuak ibilgetuko inbertsio gisa erregistratuko dira.

Ingurumenarekin lotutako gainerako gastuak, aurrekoez bestelakoak, ekitaldiko gastutzat jotzen dira.

Patronatuak baieztatzen du fundazioak ez duela ondareari, finantza egoerari eta horren emaitzei dagokienez garrantzitsua izan daitekeen ingurumen izaerako erantzukizun, gastu, aktibo, hornidura edo kontingentziarik.

### 4.9 LANGILE GASTUAK ERREGISTRATU ETA BALIOESTEKO ERABILITAKO IRIZPIDEAK

Indarrean dagoen legeriaren arabera, fundazioak kalte-ordainak ordaindu behar dizkie baldintza jakin batzuetan beren lan harremanak deuseztatzen dituzten langileei. Beraz, arrazoizko kuantifikazioa egin ahal zaien kaleratzeagatiko kalte-ordainak gastu gisa erregistratzen dira kaleratzeko erabakia hartzen den ekitaldian. Erantsitako urteko kontuetan ez da kontzeptu horrengatiko hornidurarik erregistratu, ez baitago horrelako egoerarik aurreikusita.

Fundazioak ez dauka Gizarte Segurantzakoen osagarria den pentsio planik.

### 4.10. DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Dirulaguntza, dohaintza eta legatu itzulezinak, oro har, fundazioaren ondare garbian kontabilizatuko dira, gero ekitaldiko soberakinean diru sarrera gisa birsailkatzeko, oinarri sistematiko eta zentzudun bat hartuta, dirulaguntzaren, dohaintzaren edo legatuaren ondoriozko gastuekin bat etorriz, xedearen arabera.

Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak fundatzaileek edo patroiek ematen badituzte, irizpide berari jarraituko zaio, fundazioaren hornidura gisa ematen direnean izan ezik.

Horretan oinarrituta, fundazioak itzulezintzat jotzen ditu dirulaguntzak eta dohaintzak, ezarritako baldintzak bete direlako eta jasotzeari buruzko arrazoizko zalantzarik ez dagoelako.

Emandako zenbatekoaren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira.

Fundazioak aktibatzen diren zaharberrikuntza obretarako eta ondasunen eskurapenetarako xedatzen dituen kopuruak egozten dizkiegu kapitaleko dirulaguntzei. Eta gainerakoa fundazio jardueretarako xedatutako dirulaguntzatzat jotzen da.

Fundazioak ekitaldiko soberakinean diru sarrera gisa birsailkatzen ditu patroiengandik jasotako ekarpenak, ustiapeneko diru sarrerez estaltzen ez diren egiturako eta fundazioaren jardueretako gastuei dagokienez, eta inbertsioetarako xedatutako zatia kapitaleko dirulaguntza gisa birsailkatzen du; horiek urte anitzekoak dira eta egindako amortizazioaren hornidurarekiko proportzioan egozten dira ekitaldiko diru sarrera gisa.

Urtero, bai inbertsioen zenbatespena bai emaitza kontuko gastuen eta diru sarreren zenbatespena finkatzen dira aurrekontuetan, eta babeslaritzari aurkezten zaizkio.

## 4.11. LOTUTAKO ERAGIKETAK

Horrelakorik egonez gero, talde bereko erakundeen arteko eragiketak, lotura maila gorabehera, arau orokorren arabera kontabilizatzen dira.

Egindako transakzioen helburu diren elementuak hasieran kontabilizatuko dira, arrazoizko balioaren arabera. Geroko balorazioa dagozkion kontuetarako arau berezietan ezarritakoaren arabera egiten da. Balorazio arau horrek Kontabilitate Plan Orokorraren urteko kontuak egiteko 13. arauan eta egokitzeko arauen balorazioari buruzko 11. arauan zehazten diren lotutako alderdiei eragiten die.

## 5. IBILGETU MATERIALA

Hauexek izan dira ibilgetu materialaren mugimenduak:

| Kostua | Lursailak | Eraikuntza: eraikinak eta lokalak | Eraikuntza: lagatako ondasunetan egindako inbertsioak | Makinak | Beste instalazio batzuk eta tresnak | Altzariak | Informatika ekipoak | Bestelako ibilgetu materiala | Aribideko ibilgetua eta aurrerakinak | Ibilgetu materiala guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Hasierako saldoa 2017an** | **245.501,22** | **1.910.647,34** | **23.928.939,26** | **38.580,63** | **138.309,59** | **84.542,51** | **48.563,93** | **1.208.165,59** | **0,00** | **27.603.250,07** |
| Gehikuntzak | 10.042,33 | 6.488,25 | 383.410,63 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 509,14 | 20.347,13 | 0,00 | 420.797,48 |
| Bajak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Eskualdaketak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Amaierako saldoa 2017an** | **255.543,55** | **1.917.135,59** | **24.312.349,89** | **38.580,63** | **138.309,59** | **84.542,51** | **49.073,07** | **1.228.512,72** | **0,00** | **28.024.047,55** |
| Gehikuntzak | 0,00 | 4.620,00 | 868.933,44 | 0,00 | 0,05 | 1.139,00 | 6.423,12 | 6.454,29 | 0,00 | 887.569,90 |
| Bajak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Eskualdaketak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Amaierako saldoa 2018an** | **255.543,55** | **1.921.755,59** | **25.181.283,33** | **38.580,63** | **138.309,64** | **85.681,51** | **55.496,19** | **1.234.967,01** | **0,00** | **28.911.617,45** |

| Amortizazioa | Lursailak | Eraikuntza: eraikinak eta lokalak | Erikuntza: lagatako ondasunetan egindako inbertsioak | Makinak | Beste instalazio batzuk eta tresnak | Altzariak | Informatika ekipoak | Bestelako ibilgetu materiala | Aribideko ibilgetua eta aurrerakinak | Ibilgetu materiala guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Hasierako saldoan 2017an** | **0,00** | **197.360,73** | **12.325.091,31** | **38.580,63** | **138.309,64** | **77.995,27** | **44.447,03** | **694.782,25** | **0,00** | **13.516.566,86** |
| Gehikuntzak | 0,00 | 48.333,24 | 533.447,86 | 0,00 | 0,00 | 2.084,41 | 1.376,73 | 89.802,22 | 0,00 | 675.044,46 |
| Bajak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Amaierako saldoa 2017an** | **0,00** | **245.693,97** | **12.858.539,17** | **38.580,63** | **138.309,64** | **80.079,68** | **45.823,76** | **784.584,47** | **0,00** | **14.191.611,32** |
| Gehikuntzak | 0,00 | 48.350,34 | 566.291,12 | 0,00 | 0,00 | 2.010,70 | 1.839,18 | 92.203,78 | 0,00 | 710.695,12 |
| Bajak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Amaierako saldoa 2018an** | **0,00** | **294.044,31** | **13.424.830,29** | **38.580,63** | **138.309,64** | **82.090,38** | **47.662,94** | **876.788,25** | **0,00** | **14.902.306,44** |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **KONTABILITATEKO BALIO GARBIA** | **255.543,55** | **1.671.441,62** | **11.453.810,72** | **0,00** | **-0,05** | **4.462,83** | **3.249,31** | **443.928,25** | **0,00** | **13.832.436,23** |
| **KONTABILITATEKO BALIO GARBIA 2018an** | **255.543,55** | **1.627.711,28** | **11.756.453,04** | **0,00** | **0,00** | **3.591,13** | **7.833,25** | **358.178,76** | **0,00** | **14.009.311,01** |

Ez da ekitaldi honi edo etorkizuneko ekitaldiei eragiten dien eta desegin, kendu edo birgaitzeko kostuen, bizitza baliagarrien eta amortizazio metodoen zenbatespenei eragiten dien gorabehera garrantzitsua ekartzen duen inguruabarrik gertatu.

Ibilgetuaren ondasunei ez zaie balioespen zuzenketarik egin.

Ez dago ibilgetua erosteko konpromiso irmorik 2017 eta 2018ko ekitaldien itxieran. Aktibo horiek saltzeko konpromiso irmorik ere ez dago 2017ko eta 2018ko abenduaren 31n. Urteko kontu hauek egiterakoan ez dago inguruabar berezirik ibilgetu materialeko ondasunen erabilgarritasunari eragiten dionik (auziak, enbargoak, epe jakineko errentamenduak eta horrelakoak).

Fundazioaren politika da aseguru polizak formalizatzea bere ibilgetu materialaren elementu batzuek izan ditzaketen arriskuak estaltzeko. Patronatuaren ustez, 2017ko eta 2018ko ekitaldia ixtean lortutako estaldurak egokiak dira, estalitako arriskuak aintzat hartuta.

Ibilgetua Mapfre SAk aseguratzen du.

Taula honetan ikus daiteke guztiz amortizatutako ibilgetuaren kostua:

| Ibilgetu guztiz amortizatua | 2018 | 2017 |
|---|---|---|
| Eraikuntzak (lagatako ondasunak) | 336.011,64 | 221.402,13 |
| Makinak | 38.580,63 | 38.580,63 |
| Beste instalazio batzuk eta tresnak | 138.309,59 | 138.309,59 |
| Altzariak | 73.021,86 | 70.852,35 |
| Informatika ekipoak | 43.481,93 | 43.481,93 |
| Bestelako ibilgetua | 581.136,27 | 575.696,42 |
| **GUZTIRA** | **1.210.541,92** | **1.088.323,05** |

## 6. IBILGETU UKIEZINA

| Kostua | Jabetza industriala | Informatika aplikazioak | Aribideko ibilgetua eta aurrerakinak | Ibilgetu ukiezina guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Hasierako saldoa 2017an** | **7.698,78** | **215.983,83** | **0,00** | **223.682,61** |
| Gehikuntzak | 0,00 | 28.614,15 | 1.251,72 | 29.865,87 |
| **Amaierako saldoa 2017an** | **7.698,78** | **244.597,98** | **1.251,72** | **253.548,48** |
| Gehikuntzak | 453,75 | 0,00 | 70.470,36 | 70.924,11 |
| Eskualdaketak | 1.251,72 | 0,00 | -1.251,72 | 0,00 |
| **Amaierako saldoa 2018an** | **9.404,25** | **244.597,98** | **70.470,36** | **324.472,59** |

| Amortizazioa | Jabetza industriala | Informatika aplikazioak | Aribideko ibilgetua eta aurrerakinak | Ibilgetu ukiezina guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Hasierako saldoa 2017an** | **4.505,36** | **199.020,73** | **0,00** | **203.526,09** |
| Gehikuntzak | 500,32 | 4.433,11 | 0,00 | 4.933,43 |
| **Amaierako saldoa 2017an** | **5.005,68** | **203.453,84** | **0,00** | **208.459,52** |
| Gehikuntzak | 590,03 | 8.725,23 | 0,00 | 9.315,26 |
| **Amaierako saldoa 2018an** | **5.595,71** | **212.179,07** | **0,00** | **217.774,78** |
| | | | | |
| **KONTABILITATEKO BALIO GAI** | **2.693,10** | **41.144,14** | **1.251,72** | **45.088,96** |
| **KONTABILITATEKO BALIO GAI** | **3.808,54** | **32.418,91** | **70.470,36** | **106.697,81** |

Ez da gertatu ekitaldi honetan edo etorkizuneko ekitaldietan eragin nabarmena izan duen eta hondar balioei, bizitza baliagarriei edo, hala badagokio, amortizatzeko metodoei eragiten dien inguruabarrik.

Taula honetan ikus daiteke guztiz amortizatutako ibilgetuaren kostua:

| Ibilgetu guztiz amortizatua | 2018 | 2017 |
|---|---|---|
| Jabetza industriala | 2.695,55 | 2.695,55 |
| Informatika aplikazioak | 198.251,41 | 198.251,41 |
| **GUZTIRA** | **200.946,96** | **200.946,96** |

Fundazioak ez du balio zuzenketarik egin ibilgetu ukiezinaren ondasunetan.

## 7. FINANTZA TRESNAK

47. azpitaldean ageri diren administrazio publikoarekiko kredituak eta zordunketak ez dira atal honetan ageriko.

### 7.1. FINANTZA AKTIBOAK

Fundazioaren epe laburreko balantzeko aktiboaren finantza tresnen informazioa hemen erakusten dena da, tresna horiek kategorien arabera sailkatuta:

| Askotariko zordunak | 2018 | 2017 |
|---|---|---|
| Askotariko zordunak | 15,81 | 15,80 |
| **GUZTIRA** | **15,81** | **15,80** |

| Finantza inbertsioak | 2018 | 2017 |
|---|---|---|
| Eratutako finantzak | 18.313,86 | 18.313,86 |
| **GUZTIRA** | **18.313,86** | **18.313,86** |

**Likidezia arriskua**

Fundazioak likidezia arriskua zuhurtasunez kudeatzen du eta aurreikusitako beharrei aurre egiteko nahikoa den eskudiru maila egokiari eusten dio.

Arriskuaren kudeaketaren gaineko azken erantzukizuna kudeaketa organoek daukate; horietatik fundazioaren epe laburreko, ertaineko eta luzeko likidezia beharrak kontrolatzeko esparru egokia prestatzen da. Fundazioak erreserba egokiei eta banku zerbitzu aproposei eutsiz kudeatzen du likidezia, aurreikuspenak eta funts fluxuen egungo kopuruak sakonki kontrolatuz eta horiek finantza aktibo eta pasiboen epemuga profilekin parekatuz.

## 7.2. FINANTZA PASIBOAK

Hona hemen fundazioaren balantzeko finantza tresnei buruzko informazioa, herri administrazioak alde batera utzita:

### 7.2.1 Merkataritza Hartzekodunak (epe laburrean)

| Kontzeptua | 2018 | 2017 |
|---|---|---|
| Hornitzaileak | 115,38 | 96,76 |
| Hartzekodunak | 69.753,65 | 94.023,52 |
| **GUZTIRA** | **69.869,03** | **94.120,28** |

### 7.2.2. Beste finantza pasibo batzuk

| Kontzeptua | 2018 | 2017 |
|---|---|---|
| Kreditu erakundeekiko zorrak | 130,97 | 149,47 |
| Epe laburrerako zorrak | 350,00 | 182,00 |
| Epe laburrerako ibilgetuaren hornitzaileak | 261.056,78 | 16.309,32 |
| Ordaintzeke dauden ordainsariak | 681,07 | 0,00 |
| Epe laburrera jasotako fidantzak | 990,00 | 990,00 |
| **GUZTIRA** | **263.208,82** | **17.630,79** |

## 8. JARDUNAREN ERABILTZAILEAK ETA BESTE ZORDUN BATZUK

Balantzearen aktiboan ageri den "Jardunaren erabiltzaileak eta beste zordun batzuk" izeneko epigrafean izan den mugimendua ondokoa izan da:

**Erabiltzaile, babesle, bazkide eta beste zordun batzuen mugimenduak**

| | Erabiltzaileak | Babesleak | Guztira |
|---|---|---|---|
| **A) HASIERAKO SALDO GORDINA 2017ko EKITALDIAN** | **20.660,55** | **0,00** | **20.660,55** |
| (+) Gehikuntzak | 146.785,51 | 33.292,00 | 180.077,51 |
| (-) Irteerak, bajak edo murrizketak | -153.640,91 | -18.292,00 | -171.932,91 |
| **B) AMAIERAKO SALDO GORDINA 2017ko EKITALDIAN** | **13.805,15** | **15.000,00** | **28.805,15** |
| **C) HASIERAKO SALDO GORDINA 2018ko EKITALDIAN** | **13.805,15** | **15.000,00** | **28.805,15** |
| (+) Sarrerak | 146.118,00 | 39.100,50 | 185.218,50 |
| (-) Irteerak, bajak edo murrizketak | -143.263,28 | -54.100,50 | -197.363,78 |
| **D) AMAIERAKO SALDO GORDINA 2018ko EKITALDIAN** | **16.659,87** | **0,00** | **16.659,87** |
| **H) NARRIADURAGATIKO BALIO ZUZENKETAK, AMAIERAKO SALDOA 2017 ETA 2018ko EKITALDIETAN** | **0,00** | **0,00** | **0,00** |
| **I) KONTABILITATEKO BALIO GARBIA 2018ko EKITALDIAREN AMAIERAN** | **16.659,87** | **0,00** | **16.659,87** |

